## *30 de JUNIO, jueves, día de San Marcial*

*07:00* ***REDOBLE DE CAMPANAS*** en Santa Marina.
*07:30* ***SUBIDA A SAN MARCIAL*** desde Santa Marina, rezando la Letanía
*A continuación,* ***MISA*** en San Marcial. Organiza: Parroquia de Bergara.
*Para finalizar,* ***CHOCOLATADA,*** preparada por la asociación San Joxepe.

## *2 de JULIO, sábado*

*18:30* ***PASACALLE*** de gigantes, acompañados por los dulzaineros de Elgoibar y Arrasate y la Banda de Txistularis de Bergara. Recorrido: Plaza San Martín, Bidekurutzeta, San Pedro, Artekalea, Arruriaga, Masterreka, Bideberri, Paseo Irizar, Barrenkalea y Plaza San Martín Agirre.

## *3 de JULIO, domingo, romería de San Marcial*

*09:30* ***ALBORADA*** con los dulzaineros de Lizarra, los trikitilaris Elustondo anai-arrebak, la Banda de Txistularis de Bergara y la charanga Incansables.
*10:00* ***SUBIDA*** a San Marcial con el "GURDI".
*11:00* ***MISA MAYOR*** en San Marcial. Organiza: Parroquia de Bergara.
*12:00* ***DANZAS,*** y a continuación Larrain-dantza de Lizarra con los dulzaineros.
***Después*** actuación de los bertsolaris Julio Soto y Alaia Martin.
***A continuación,*** tradicional AURRESKU y la animación de los dulzaineros de Lizarra y los trikitilaris Elustondo anai-arrebak. A continuación, cantos populares frente a la cantina.
*15:30* ***JUEGOS DE DEPORTE RURAL*** para público infantil y juvenil.
*17:00* ***DEPORTE RURAL:*** Sokatira y prueba de txingas. La inscripción comenzará a las 16:15 horas en la campa. Entre ambas pruebas, ***CAMPEONATO DE IRRINTZIS.*** (categorias: menores de 16 años y mayores de 16 años)
*18:00* ***ROMERÍA*** amenizada por el grupo MUXUTRUK.
*19:30* ***Animación*** a cargo de la charanga Incansables y los trikitilaris Elustondo anai-arrebak.
*21:00* ***CHUPINAZO DE BAJADA, y BAJADA*** amenizada por los dulzaineros de Lizarra, los trikitilaris Elustondo anai-arrebak y la charanga Incansables. Inician la bajada los txistularis; les siguen los dulzaineros, después salen los trikitilaris, y en último lugar la charanga.

Cuando los dulzaineros llegan a Askatzu esperan al resto, para bailar todos juntos el fandango y arin-arin. Después se reanuda la bajada, en el mismo orden anterior. Al llegar a Santa Marina, nueva parada para bailar fandango y arin-arin.
La charanga dará por terminada la bajada en la plaza San Martín.
La bolera estará abierto todo el día.

## *LA ROMERÍA DE SAN MARTZIAL, DESDE EL RESPETO A LA NATURALEZA*

Próxima la celebración del día de San Marcial, nos disponemos a celebrar esta fiesta en una zona verde del municipio. Por ello, para una utilización sostenible de este espacio, conviene seguir las siguientes normas, ya que San Martzial es un valioso tesoro de nuestro municipio y su preservación es responsabilidad de todos.

### *1.- RESPETAR LOS ÁRBOLES Y TRONCOS VIEJOS*

En el arbolado de San Martzial tenemos robles, castaños, hayas, fresnos..., así como troncos viejos que son muy valiosos para este arbolado. Debemos cuidar todos estos elementos con mucho tiento.

No se pueden meter clavos en los árboles, ni poner, introducir o colgar elementos extraños de ningún tipo. No se pueden cortar las ramas de los árboles ni quitarles hojas. Se deben respetar los troncos viejos, así como el vallado de madera que los protege.

### *2.- RECOGER LOS RESIDUOS ADECUADAMENTE*

A fin de que todas las personas podamos disfrutar de la fiesta de San Marcial de manera sostenible, los residuos se recogerán de modo selectivo y, al finalizar la fiesta, se depositarán en los contenedores correspondientes que estarán colocados en diversos puntos. San Martzial debe quedar tal como estaba antes de la fiesta.

### *3.- NO PUEDES TRANSFORMAR SAN MARTZIAL POR TU COMODIDAD*

Todos los elementos e infraestructura de San Martzial (juegos infantiles, mesas, fuentes, vallados, muros, paneles informativos, etc.) están ahí para ser utilizados por todas las personas a lo largo de todo el año; respétalos.

Así pues, desde el respeto, San Martzial debe quedar tal y como está, tanto las piedras de los muretes como las mesas fijas. El agua de la fuente solo se utilizará para beber, no para fregar; y, por supuesto, no se podrá allanar el terreno para formar "terrazas".

El ayuntamiento pide que no se instalen mesas fuera de los terrenos municipales, a no ser que se cuente previamente con la autorización de las personas propietarias.

### *4.- NO SE PUEDE HACER FUEGO DIRECTAMENTE EN EL SUELO*

Preservar el entorno de San Martzial es tarea de todos, por lo que debemos extremar el cuidado en el uso de dispositivos para encender fuego.

### *5.- AL ACABAR LA ROMERÍA, DEJAR LIMPIA LA ZONA VERDE DE SAN MARTZIAL*

Una vez finalizada la romería hay que recogerlo todo, retirando y guardando todos los elementos que se hayan llevado para ese día (mesas, sillas, toldos, barriles...). La responsabilidad de retirarlos será de las personas que los hayan llevado. San Martzial debe quedar tal como estaba.

### *6.- HERRIBUS Y TRÁFICO DE VEHÍCULOS*

A fin de reducir el número de vehículos, el día 3 de julio habrá SERVICIO DE HERRIBUS (URBANO) hasta San Martzial durante todo el día, por la mañana de 9:30 a 14:00, y por la tarde de 16:00 a 20:30. Las paradas serán en la plaza Oxirondo y en San Martzial.

Así, el camino de San Martzial permanecerá cerrado al tráfico de 10:00 a 11:00 de la mañana, y de 21:00 a 22:00 de la noche. Tampoco se podrá acceder en vehículo a la campa durante todo el día, excepto para la descarga de género.

### *7.- AGRADECIMIENTO*

Agradecemos a VINOS ATXEGA ("Vinos López Ojeda"), MANSO HERMANOS y MINER ARDOAK su colaboración con la Comisión de Festejos del Ayuntamiento de Bergara, por la aportación gratuita del vino del "gurdi" que rotativamente hacen cada año para el día de San Marcial. El vino de este año ha sido donado por la empresa ***MANSO ARDOAK***. En la barrica, no se servirá vino a menores de 18 años.

### *8.- AVISOS VARIOS*

La inscripción para los juegos de deporte rural y campeonato de irrintzis de la tarde comenzará a las 16:15 horas en la campa de San Marcial.

En la bajada de la tarde-noche, NO ECHAR AGUA A LOS MÚSICOS, ya que se estropean los instrumentos de música.

***¡Por un modelo festivo saludable, disfrutemos las fiestas en libertad y cordialidad, dejando a un lado consumos de riesgo! ¡Respetémonos, respetemos a las/os demás, respetemos el entorno!***

¡Felices fiestas de San Marcial!

## San Martzial Jaiak 2022

### GASTUEN AURREIKUSPENA

| | |
|---|---|
| Jai-egitaraua | 700,00 |
| Zapiak | 310,00 |
| Txokolatea prestatzea | 200,00 |
| Bolatokia prestatzea eta sariak | 680,00 |
| Igoera idiekin egitea | 484,00 |
| Erraldoi konpartsaren kalejira eta dultzaineroak | 2.020,00 |
| Kiliki eta buruhandiak ateratzea | 132,00 |
| Lizarrako dultzainariak | 966,00 |
| Elustondo anai-arrebak trikitilariak | 736,00 |
| Incansables txaranga | 1.600,00 |
| Lanku, bertsolariak | 838,00 |
| Bazkariak | 1.700,00 |
| Haurrentzako jolasak | 285,00 |
| Herri jokuetarako sariak | 660,00 |
| Irritzi lehiaketarako saria | 50,00 |
| Muxutruk taldea eta soinuztatzea | 1.452,00 |
| Zelaia eta eliza soinuztatzea | 1.028,50 |
| Txosnaren alogera. Jai-Kit | 1.421,75 |
| Komunen alogera. Komunonak | 1.928,20 |
| Anbulantzia | 720,00 |
| Egile eskubideak. SGAE | 420,00 |
| Argindarraren gestioa. Electricidad Urola | 400,95 |
| Aulki eta mahaien alogera. Aulkia | 3.007,00 |
| Material iraungikorra | 760,00 |
| Bestelakoak | 500,00 |
| **GUZTIRA** | **23.000,00** |

### SARREREN AURREIKUSPENA

| | |
|---|---|
| Mahaien eta aulkien alokairua | 3.007,00 |

Bergarako Udala



# San Martzial Jaiak

## 2022

## *Bergara*

BERGARA
izan, bizi, ekin

Bergarako Udala

## EKAINAK 30, osteguna
### *San Martzial eguna*

**07:00** **KANPAI JOTZEA** Santa Marinan.

**07:30** Santa Marinatik **SAN MARTZIALERA IGOERA,** Letania errezatuz.

**Ondoren,** **MEZA** San Martzialen. Antolatzailea: Bergarako Parrokia.

**Bukaeran,** **TXOKOLATEA** San Joxepe elkarteak prestatua.

## UZTAILAK 2, larunbata

**18:30** Erraldoien **KALEJIRA,** Elgoibarko eta Arrasateko dultzaineroek eta Bergarako Txistulari Bandak lagunduta. Ibilbidea: San Martin plaza, Bidekurutzeta kalea, San Pedro, Artekalea, Arruriaga, Masterreka, Bideberri, Irizar pasealekua, Barrenkalea eta San Martin Agirre plaza.

## UZTAILAK 3, igandea
### *San Martzialgo erromeria eguna*

**09:30** **ALBORADA:** Lizarrako dultzaineroak, Elustondo anai-arrebak trikitilariak, Bergarako Txistulari Banda eta Incansables txaranga.

**10:00** San Martzialera **IGOTZEA** gurdiarekin.

**11:00** San Martzialen **MEZA NAGUSIA.** Antolatzailea: Bergarako Parrokia.

**12:00** **DANTZA EMANALDIA.** Jarraian Lizarrako Larrain-dantza dultzaineroekin. Ondoren Julio Soto eta Alaia Martin bertsolarien jarduna.

**Ondoren,** **ohiko AURRESKUA,** eta gero Lizarrako dultzaineroak eta Elustondo anai-arrebak trikitilariak. Segidan, abesti herrikoiak kantina ondoan.

**15:30** Umeentzako eta gaztetxoentzako **JOLASAK ETA HERRI KIROLAK.**

**17:00** **HERRI KIROLAK:** Sokatira eta txingak. Izen-ematea 16:15ean hasiko da zelaian. Sokatira eta txinga eramate saioaren tartean **IRRINTZI TXAPELKETA** (16 urtetik beherako kategoria eta 16 urtetik gorakoentzat) egingo da.

**18:00** MUXUTRUK taldearen eskutik **ERROMERIA.**

**19:30** Incansables txarangaren eta Elustondo anai-arrebak trikitilarien saioa.

**21:00** **JAITSIERAKO TXUPINAZOA eta JAITSIERA,** Lizarrako dultzaineroek, Elustondo anai-arrebak trikitilariek eta Incansables txarangak alaituta. Lehen tokian dultzaineroak irtengo dira, atzetik trikitilariak, eta azken tokian txaranga.

Dultzaineroak Askatzura iristen direnean beste guztien zain gelditzen dira, **denek batera** fandango eta arin-arina dantzatzeko. Horren ondoren jaitsierarekin jarraitzen dute guztiek, lehenengo ordena berberean. Santa Marinara iritsitakoan geldialdia egiten da berriro denak iritsi arte, fandango eta arin-arina **denek batera** dantzatzeko.

Jaitsierari txarangak emango dio bukaera, San Martin plazan.

Egun guztian zehar bolatokia irekita egongo da.

## *SAN MARTZIAL ERROMERIA, NATURA ERRESPETATUZ OSPATU*

San Martzial eguna iristear dago eta jai eguna herriko berdegune batean ospatzera goaz. Horregatik, eremu hori modu jasangarrian erabiltzeko, arau hauek jarraitzea komeni da; San Martzial herriko altxor baliotsua da eta guztion ardura da altxor hau zaintzea.

### 1.- ZUHAITZAK ETA ENBOR ZAHARRAK ERRESPETATU

San Martzialeko zuhaiztian haritzak, gaztainondoak, pagoak, lizarrak... ditugu, eta baita zuhaizti horretako elementu baliotsuak diren hildako enborrak ere. Hauek denak kontu handiz zaindu behar ditugu.

Ezin da zuhaitzetan iltzerik sartu ezta inolako elementu arrotzik sartu, jarri edo zintzilikatu ere. Ezin da zuhaitzen adarrik moztu edota hostorik kendu. Hildako enborrak eta hauek babesteko jarritako egurrezko hesiak ere errespetatu egin behar dira.

### 2.- HONDAKINAK BEHAR BEZALA BATU

San Martzial eguna guztiok era jasangarrian disfrutatzeko, hondakinak gaika bilduko dira eta, jaia amaitzean, gune desberdinetan jarriko diren edukiontzietara eramango dira. San Martzial zegoen moduan lagako dugu.

### 3.- EZIN DUZU ALDATU SAN MARTZIAL ZURE EROSOTASUNAGATIK

San Martzialeko azpiegitura eta elementu guztiak (haur-jolasak, mahaiak, iturriak, hesiak, hormak, informazio-panelak etab.) urte guztian zehar denok erabiltzeko dira; errespetatu itzazu.

Beraz, San Martzial dagoen moduan lagako da, errespetuz; hormetako harriak dauden moduan lagako ditugu, baita mahai finkoak ere. Uraren aska ura edateko erabiliko dugu eta ez harrikoa egiteko, eta, noski, lurra ezingo da leundu, hau da, ez da "terrazarik" egingo.

Udalak eskatzen du udal lurretatik kanpora mahairik ez jartzea, baldin eta aurrez lur-jabeen baimenik lortu ez bada.

### 4.- EZIN DA SURIK EGIN ZUZENEAN LURREAN

San Martzialeko ingurua zaintzea guztion lana da; beraz, sua egiteko gailu desberdinak tentuz erabili betiere.

### 5.- ERROMERIA AMAITZEAN, LAGA TXUKUN SAN MARTZIALEKO BERDEGUNEA

Erromeria amaitzean dena jaso beharko da, bertara eramandako elementu guztiak kendu/jaso beharko dira (mahaiak, aulkiak, estalkiak, kupelak...). Elementu horiek erretiratzeko ardura izango dute hara eraman dituzten herritarrek. San Martzial zegoen moduan lagako da.

### 6.- HERRIBUSA ETA IBILGAILUAK

Ibilgailuen kopurua gutxitzeko, uztailaren 3an San Martzialerako HERRIBUS ZERBITZUA izango da egunean zehar, goizean 9:30etik 14:00etara eta arratsaldean 16:00etatik 20:30era. Geltokiak Oxirondo plazan eta San Martzialen izango dira.

Beraz, San Martzialerako bidea trafikorako itxita egongo da 10:00etatik 11:00etara eta 21:00etatik 22:00etara; eta egun horretan ezingo da zelaira autorik sartu, bertara jeneroa daramatenak izan ezik.

### 7.-ESKERTZA

San Martzial egunean gurditik eskaintzen den ardoa dohainik ematen dute txandaka VINOS ATXEGA ("Lopez Ojeda" ardoak), MANSO HERMANOS eta MINER ARDOAK enpresek. Hori dela-eta, Bergarako Udaleko Jai Batzordeari ematen dioten laguntza eskertzen dugu. Aurtengo ardoa **MANSO ARDOAK** enpresak eman du. 18 urtetik beherakoei ez zaie barrikako ardorik emango.

### 8.- HAINBAT OHAR

Arratsaldeko herri-kiroletarako eta irrintzi-lehiaketarako izen-ematea 16:15ean hasiko da San Martzialgo zelaian.

Iluntzeko jaitsieran, mesedez, EZ BOTA URIK MUSIKARIEI, musika-tresnak hondatu egiten dira-eta.

**Jai eredu osasungarriaren alde, bizi ditzagun jaiak aske eta elkartasunean, kontsumo arriskutsuak alde batera utziz! Errespeta ditzagun geure burua, besteak eta ingurua!**

**Ondo pasa San Martzial jaiak!**